

## Sindikatuak Euskal Herrian (eta 2)

*Deia*, 1983-09-10.

Euskal herrian bertako interesak defendatzeko asmotan eraturiko sindikatua ez zen nahi bezain laster sortu.

Madrileko gilborretik lotuta jaio zena aurreratu zen Lehenengo, Internazionalarekin Madrilen eta Bartzelona, eta baita Bilbon bertan ere. XXen mendeko lehen urteak ez ziren ekonomi aldetik errazak izan, eta Euskadi-Catalunyako Autonomi-arazoaz gainera bizitzearen garestidura gora zihoanez, eusko langileriak eratu zuen berea.

1917an, ideolojia guztietako sindikatuak bat egitea erabaki zuten Euskadin 8 *orduko ihardunaldia*, %25 soldata jaso eta %50 orduz kanpoko plus bereziak igoteko programa orokorra defendatzeko.

Euskaldunentzat zailagoa zen borroka, eskabide sindikalarekin batera Autonomiaren aldeko borroka asumitzen baitzuten.

*Solidaridad de Obreros Vascos* (SOV) 1910ean ditu lehen haziak; baina aipa berria dugun 1917go *greba iraultzailea* izan zuen lehen proba nagusia. Bost langintza-sailekin jaio zen: 1. Zuraren langileak. 2. Metalean ari direnak. 3. Harginak eta igeltseroak. 4. Itzainak, lapakariak eta peoiak. 5. Gainontzeko lanbideak. Denetara 178 bazkide. Arauetan esaten da: alderdi politikoeekin loturik ez duela; ezta EAJ/PNV-rekin ere, alderdi hau gizarteko klase guztietakoa osatu baitago, eta SOV langile eta enplegatuen da.

Orduandantik eusko sindikatuak borroka handiak egin ditu espainolek hemen sortutakoekin.

Laster da UGT-ren hurbil; 1916an egindako Batzar Nagusian ba ditu 19 talde Bizkaian eta 7 Gipuzkoan: Bilbo, Durango, Deusto, Sestao, Areak, bizkaitarrak; Eibar, Soraluze/Plazentzia, Bergara, Anzuola, Oñati eta Beasain, gipuzkoarrak.

Hemen eratu zen "Langabe zegoanarentzat laguntza" eta honetarako beharrezkoa zen "Erresistentzia Kaja", sozialistekin sortzen ziren konpetentzietako grebaketan eusteko.

Eta 1919an eratutako Batzar Nagusian (otsailak 23) egin ziren aurrerapenen arabera, Bizkaia eta Gipuzkoako Federazioen Konfederakuntza erabaki zen. 1920go urriak 9: tiroz hiltzen duten lehen solidarioa; sozialistak guardia zibilaren laguntzarekin ekin omen zieten, eta hauen tiroz hila izan ote zen *Marcelino Txarterina*; urte honetan bertan beste heriotz bat: *Jose Elexalde*. 1921an borroka aurrera doa, eta bi garaipen lortzen dira: Serapio de Abrisketa-ren lantegian eta Altos Hornos-en.

*ELA-STVren Kongresua Eibarren eratzen da 1929an*. Sindikatuaren zabalkundea Euskadi osora heltzen hasia da. Gipuzkoa aurrera dioa; Arabak ba du gazte talde jator bat, eta Nafarroan hastapenetan. Batzarra, sozialisten feudoan bertan, aberatsa izan da,

hitz egiten dute: Arabatik, Vinos jaunak; Gipuzkoatik, Leizaolak; Bizkaiatik, Robles Arangizek, eta Nafarroatik, Basterrak. Eta Eibar bertotik, Gaztelu eta Ormaetxeak.

Hemendik aurrera hasten da indartzen: Nafarroan, bereziki, sortzen dira taldeak Tutera, Tafalla, Artaxona eta Aoizen.

*Bigarren Kongresoa 1933an eta Gasteizen* eratzen da: Robles Arangiz aukeratzen dute lehendakari, aldatzen da SOV izena, hemendik aurrera ELA/STV izango da; gaur *Munduko Langileen Federakuntza* den erakundean sartzen da; *El obrero vasco*-ren ordean, *Lan Deya* sortzen da, asterokoa oraindik, baina egunerokoa bilakatzeko asmotan.

Gaur, exilioko proba luzea pasa eta gero, ELA da Euskalerrian Sindikaturik indartsuena.